

Jakinarazten da honako dekretu hau eman dela:

**2026/740 DEKRETUA
2026/04/24**

“Gorka Artola Alberdik, Bergarako Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera, gaia aztertu eta ebazpena eman dut.

IKUSIRIK

Begarako udalak Kalegarbiketako zerbitzuaren arduraduna aldi baterako kontratatzeke premia suertatu zen. Horren aurrean, idazkaritzako administrazio orokorreko teknikariak proposatu zuela presazko deialdia egitea LANBIDEren bitartez eta deialdi hori arautuko zuten oinarriak 2026ko martxoaren 31n onartu zirela alkate dekretu baten bitartez.

KONTUAN HARTURIK

Izena emateko epea amaituta, aurkeztutako izangai bakarrak ez dituela oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen.

Guzti hau kontutan izanik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- Lanbide bitartez Kalegarbiketako zerbitzuaren arduraduna aldi baterako kontratatzeke deialdia hutsik aitortzea.

Bigarrena.- Erabaki hau udaleko web orrian argitaratzea.

Erabakiaren aurkako errekurtsoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeke errekurtsoa aurkez dezake, 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena):

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

- Non: Alkatezara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztaillaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik:

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsuaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsuaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.”

Eta behar diren ondorioetarako, jakinarazpen hau eman eta izenpetzen dut. Bergaran, sinadura datan.

**Idazkaria
Xabin Juaristi Arrieta**

